

EUSKARAREN Berri-papera

aurkibidea

1 • Euskararen Aholku Batzordearen osoko bilkura

2 • PERTSONAJEA:
Itxaro Borda

• LABURRAK:
EAEko aurrematrikulazioa
Robert Laxalt-en heriotza

• AGENDA:
Hizkuntzen eta Kulturen Topaketak Ovidon

3 • Literatura Unibertsala bilduma
• Bizkaiko 1:5.000 kartografiarako toponimia

4 • Aurtengo hitzarmena sinatu dute erakundeek Euskaltzaindiarekin
• "Euskaraz Bizi" programa berria

Euskararen Aholku Batzordearen osoko bilkura

Agiria plazaratu zuen Batzordeak

"Guztion euskarak guztion beharra du" lemapean

Jose Mari Korta batzordekide zena omendu zuten legealdiko azkeneko bileran

Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak zuzendu zuen martxoaren 27an Gasteizko Lehendakariaren egoitzan Euskararen Aholku Batzordeak (EAB) legealdi honetan egindako azkeneko bilera. Bertan, batetik, ETak iaz hildako Jose Maria Korta batzordekide zenaren aldeko gorazarrea egin zen eta, ekitaldian bertan, Jose Mari Kortaren seme Ibaik oroigarri bat jaso zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. Bestetik, agiria onartu zen "Guztion euskarak guztion beharra du" lemapean.

Guztion euskarak guztion beharra du

Euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkariak osaturiko Euskararen Aholku Batzorde honek, bere aurreko guztiek bezala, ahalegin handia egin du euskara guztion ondasuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin. Izan ere, milaka urte lehenago sortua, belaunaldiz belaunaldi, gureganaino heldu den hizkuntza da euskara. Edozein hizkuntza bezala, gizaki adimendunak bere sentimenduak, bere ikuspegiak, bere usteak eta abar, besterekin komunikatzeko sortua. Adimenaren, sormenaren eta elkarrekin komunikatu beharraren fruitu dira, beraz, hizkuntzak. Oinarri-oinarrian berdinak diren gizon-emakumeek, inguruneak eta premiek desberdindurik eta hartaraturik, tokian tokiko hizkuntzak sortzen baitituzte.

Mundua tiki bihurtu zaigun garai honetan, hizkuntza bakar batek bere abantailak balitu ere, kolore, kultura eta ikuspegi bakarreko mundu kloniko eta txiroa bihurtuko genuke. Kultura- eta hizkuntza-aniztasunak aberasten eta edertzen dute mundua. Are gehiago, hizkuntzak jakiteak adimenaren gaitasuna eta trebetasuna zorrotzen eta handitzen ditu, abantaila ekonomikoak eta sozialak sortzen eta elkarbizitza eta gizartearen kohesioa errazten. Hizkuntzak, nagusiki, komunikazio-tresna dira, gizarte osoaren altxor izateaz gain. Eta erabilera-eremuak eta arloak murrizten eta mugatzen zaizkien neurrian galdu egiten dute, komunikaziorako gaitasuna ezezik, beren biziraupena ere. Alde horretatik hizkuntza guztiek ez dituzte aukera berdinak bizitzeko eta komunikazio-tresna biziak eta erabilgarriak izateko. Egoera ezberdinek politika ezberdinak eskatzen dituzte beraz, ahularen aldeko ekintza positiboak sustatuz.

Euskarak ere, hiztunen eskutik, beste hizkuntza guztiek bezalaxe, bizitzeko eskubidea du, ez baita berez eta nahitaez hiltzeko sortua den hizkuntzarik.

Euskarak, mendez mende, erakutsi du bizinahia, inguruan izan dituen hizkuntza guztien artean eta jasan dituen eraso guztien gainetik. Baina iraungo badu, hiztunen hizkuntza-eskubideak ziurtatu behar dira, hiztunik gabe ez baitu hizkuntza batek aurrera egiten. Eta gizartea elebidundu gabe ere, zaildu egiten zaizkio euskaldunari euskara erabiltzeko aukerak. Horretaz gainera, iraungo badu, biziberritu eta eguneroko bizitzarako baliozko bihurtu behar da hizkuntza.

Erdararekin batera, ofizialkide bihurtu den demokrazia aldi honetan, berriz, hizkuntzarik ahulena denez, euskara sustatzeari eta indartzeari ekin diogu Autonomia Erkidego honetan bederen, alderdi politikoaren, sindikatuen, irakasleen, funtzionarioen eta euskaltzaleen arteko ahal denik eta errespeturik eta adostasunik handienaz. Izan ere, gizarte aurreratueta, ahulenera laguntzeko neurriak hartu ohi dira, ez ahulena enbarazutik kentzeko erabakiak. Euskara ere, erdarak bezalaxe, gerta daiteke inoiz norbaitentzat eragozpen. Baina horrelakorik ahal denik eta gutxien gerta dadin, inposiziorik gabe, malgutasunez eta tokian tokiko egoera kontuan izanez jardun izan dugu. Horrela jokatu da lehen eta, aurrerantzean ere, horrelaxe jokatu dugu.

Herritarrek erakutsitako jokabideari eta sosteguari esker, euskarak asko aurrertu du gure artean. Baina euskaraz bizi nahi duten herritarrek ez dituzte oraindik erdaldunek dituzten aukera berdinak. Aukera berdinak izan ditzaten da helburua, jakina, modu irekian eta inor behartu gabe, egin behar diren urratsak eginez. Zoritxarrez, ordea, euskara, ofizialtasunik ez duen herrietan, atzeraka ari da. Gainera, zenbaitentzat, berriro susmagarri eta arbuigarri bihurtu da euskara, azken bolada honetan euskarazko hezkuntzari eta euskararen irakaskuntzari egiten zaizkion salaketetan ongi nabarmentzen denez.

Euskararen Aholku Batzorde honek dei egiten die, herritarrei bereziki, orain arte bezala, kementsu aurrera egin dezaten. Hizkuntzari egiazko balioa erabilera-aren poderioz ematen baitzaio.

Guztiona den euskarak guztion beharra du. Guztiok hartu behar dugu geuretzat. Guztiok lagundu behar diogu ahal dugun eran eta neurrian. Ez dezagun inolaz ere elkarren aurkako armatzat erabil. Errespetatu ditzagun orain arteko adostasunak. Gehi eta hobetu ditzagun. Euskararen egoera eta etorkizuna guztion ardura eta erantzukizuna baitira.

Laburrak

EAEko aurrematrikulazioa

Hezkuntza sailburu Inaxio Oliverik emandako aurrematrikulazio-datuaren arabera, ikasleen erdiek D ereduan ikasiko dute datorren ikasturtean. Guztira 241.502 ikaslek ikasiko dute Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. Erdiek D ereduan ikasiko dute -120.846-, %28,42k B ereduan, eta %22k A ereduan. Hiru urteko ikasle berrien kasuan, berriz, 16.544 ikasle aurrematrikulatu dituzte: %61,4 D ereduan, %29,7 B ereduan, eta %8,9 A ereduan.

Robert Laxalt-en heriotza



ZALDIERO

Martxoaren 23an hil zen Robert Laxalt idazle eta kazetaria Renoko (Nevada, EEBB) Saint Mary ospitalean, 77 urte zituela. Laxalt izan da azken berrogei urte honetan EEBBetan, eta bereziki Nevadan, euskal kulturaren gaineko ikerkuntza piztu duen eragile nagusia. Euskal Herriari eta euskal kulturari buruzko liburuak eta prentsa artikuluak idazteaz gain (besteak beste, National Geographic aldizkarian argitaratu zituen erreportajeak), Western Basque Festival-a —Mendebaldeko Lehen Euskal Jaialdia— sortu zuen Renon 1959an eta erabakigarria izan zen Nevadako Unibertsitatean Euskal Ikasketen Programa sor zedin, 1967an.

Agenda

Hizkuntzen eta Kulturen Topaketak Oviedon

Asturiasko Printzerriko Hezkuntza Sailburuordetzak antolatutako Hizkuntzen eta Kulturen Topaketak egingo dira Oviedon maiatzaren 3, 4 eta 5ean. Topaketa hauek "2001, Hizkuntzen Urte Europarra"-ren aitzakian eratu diren ekitaldien barruan egingo dira. Era berean, Atzerriko Hizkuntzak Adin Goiztiarrean Bereganatzeari buruzko Nazioarteko Biltzarra izango da datorren irailaren 24tik 26ra.

PERTSONAJEA

Itxaro Borda

Milurte berriko euskarazko lehen nobelaren egilea



ZALDIERO

Nobela berria argitaratu du oraindik orain Itxaro Bordak (Baiona, 1959). Mende berri honetako euskarazko lehen nobela dugu *100% Basque*. 1974an *Herria* astekarian publikatu zuen lehen olerkiak gero hainbat lan kaleratu du idazleak. Tartean dira, adibidez, *Basilika* (1984), *Hogoigarren mendeko emakumeak idazle*. *Antologia eta ohar zenbat* (1984), *Krokodil bat daukat bihotzaren orde* (1986), *Just Love* (1988), *Bakean utzi arte* (1993), *Manex Erdozaintzi-Etxart (1934-1984)* (1995)...

100% Basque Iparraldeko idazleak idatzia da eta liburuan agertzen den atzealde geografikoa, ekonomikoa, politikoa eta kulturala ere Iparraldekoak dira. Hizkuntza ere Iparraldekoa da lexikoan, baina guztiz batua.

Iparraldeko gaztategi batek AOC labelarekin ekoizten duen gazta ezagun baten lema da "100 % Basque". Euskal nortasunari erantsi zaizkion estereotipoen barre egiten du idazleak nobela honetan, ironia handiz. Nobela izanik ere, 40 narrazioz osaturiko liburua da. Berrogei bizitza-zati, tartean ZEN filosofiazko aipuak dituztela kontraste eginez.

Itxaro Borda beti ari izan da, idazle ez ezik, ikastolako arduradun, Seaskako kide, idazkari edo lehendakari eta, aspaldian ez bezala, idazle soil etorri zaigu. Berak esan bezala, "nik literatura mailako proposamen bat egiten dut, hizkuntza literario batean".



Eusko Jaurlaritzak eta EIZIEk jarraipena emango diote Literatura Unibertsala bildumari

Kaleratu berri dira *Deabruaren hiztegia*, *Kontakizunak* eta *Besteen odola* liburuak

Hiru liburu berri kaleratu ditu Ibaizabal argitaletxeak *Literatura Unibertsala* bildumaren barruan: Ambrose Bierceren *Deabruaren hiztegia*, Xabier Olarrak itzulia; Edgar Allan Poeren *Kontakizunak*, Koro Navarrok euskaratua; eta Simone de Beauvoirren *Besteen odola*, Oier Alonsok euskaratua. Bildumako 87, 88 eta 89. aleak dira, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearen (EIZIE) arteko hitzarmenari esker euskaratu dituzte liburu horiek denak. Hain zuzen ere, 100 liburu kaleratzeko hitzarmena sinatu zuten 1989. urtean, eta akordioari jarraipena ematea erabaki dute bi erakundeek. Izan ere, hitzarmen berri bat sinatuko dute literatura unibertsalaren lan gehiago euskaratzen jarraitzeko.

Itzulpen-lanok euskara munduko literatura onena itzultzeko gai dela erakutsi dute eta, gainera, literaturaren historian punta-puntako egileek idatzitako lanik adierazgarrienak hemengo itzultzaile onenek euskarara itzultzea izan dute helburu. Era berean, literatura unibertsaleko liburuetan euskarak duen urritasuna kon-tuan hartu eta hutsune hori bete nahi izan dute.


Besteen odola, Simone de Beauvoir

Eleberri hau 1944. urtean argitaratu zen, eta arrakasta handia izan zuen gerra ostean. *Besteen odola* liburuan gizakiak, bere baitan inolako arazo moralik izan gabe, milaka pertsona nola hil ditzakeen aztertzen da. Hiltzea zilegi ote den, bortizkeria nahiz erresistentzia bera ere aztergai ditu.

Ezagunak dira Simone de Beauvoirrek feminismoari buruz egini-ko lanak. Liburu honetan ere emakumearen emantzipazioa lan-tzen du Sartreri itzal egin zion idazle frantsesak.



AMBROSE BIERCE



EDGAR ALLAN POE



SIMONE DE BEAUVOIR

EGUNKARIA

Edgar Allan Poeren *Kontakizunak*

Liburua euskarara itzuli duen Koro Navarroren iritziz, «Poeren gai nagusia beldurra da, izua. Bere testu ia gehienetan horixe da protagonista». Izan ere, liburu honetako zortzi testuetatik zazpi-tan hala gertatzen da. Itzultzailearen arabera, beldurra agertzeko modu berezia du E.A. Poek, modu matematiko batean, zientifiko-an, aurkezten baitu. Eta horixe da XIX. mendean sorturiko idazle-aren modernotasunaren adibideetako bat.

Deabruaren hiztegia eta Ambrose Bierce

Deabruaren hiztegia egilearen obrarik adierazgarriena da, munduari buruz hark zuen ikuspegia egokien liburu horrexek jasotzen duelako. Xabier Olarra itzultzailearen aburuz, Ambrose Biercek kritikarako joera handia zuen, eta umorea eta zorroztasuna gupidarik gabe erabiltzeko zaletasuna, eta gizakiaren alderdi kaskarrenak egurtzekoa. Idazleak kritika lan hori bere garaiko aldizkari eta egunkarietan egin zuen. Hala, *Deabruaren hiztegia* ia 30 urtetan zehar idatzitako hainbat lanen bilduma da.

Bizkaiko 1:5.000 kartografiarako toponimia

Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 1:5.000 eskalako kartografiarako toponimiaren inbentariatua, tratamendua eta aurkezpena egiterari ekin berri dio. Lan horretan, batetik, aurrez hautatutako lekukoei egindako inkestean bitartez bildutako toponimoak jasoko dira eta, bestetik, dokumentu historikoetan (batzuetan ertaroraino-koetan) erabili izan direnak.

Toponimoen normalizazio-proposamen bana egingo da, euskarazko zein gaztelaniazko bertsiotan.

Lana Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kontratatu du eta 2002ko abenduaren 31rako burutu beharko da.

Aurtengo hitzarmena sinatu dute erakundeek Euskaltzaindiarekin

Akademiak 2001. urtean egingo dituen lanak ezarri dira

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek aurtengo hitzarmena sinatu dute. Bertan, 2001. urteko diru-ordainketak eta aurtengoa egin beharreko lanak ezarzen dira. Hiztegiaren, Orotariko Euskal Hiztegiaren XIV. aleko lanak amaitu eta XV.arenak hasiko ditu Euskaltzaindiak. Hiztegi Batuko batzordeak A-Z bitarteko bigarren itzuliko 5.000 hitz edo forma aztertuko ditu (L-S letraz hasiak izatea begiz jotzen da). Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoari dagokionez, 1999ko euskal produkzioari dagokion inbentario sailkatua egingo da.

Gramatikagintzan, menderakuntzari buruzko bigarren liburukiko txostenen idatzaldia amaituko da, besteak beste. Dialektologian, eta Euskal Herriko Hizkuntza Atlas gogon, atlasgintzari buruzko jardunaldiak egingo dira. Onomastikari denaz bezainbatean, foru- eta autonomia-administrazioentzako hainbat toponimo-zerrenda finkatuko ditu Euskaltzaindiak.

Beste hainbat arlo eta batzordetan ere egingo du lan akademiak: dela herri-literaturan, euskara batuaren gaineko gaietan, corpusari dagozkionetan eta bestetan.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

"Euskaraz Bizi" programa berria

Euskara eta landa-turismoa garatzea ditu helburu

Landa-turismoa eta euskara sustatzeko programa abiarazi dute Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Programaren helburu dira euskararen erabilpena bultzatzea eta EAEko landa-turismo sarearen garapena sustatzea.

Aste Santuan abiatu zen programa eta bi urteko iraupena izango du. "Euskaraz Bizi" programaren bitartez, astialdirako hainbat jardura eskainiko dira euskararen ikaskuntza eta hobekuntzarako. Euskal hiztunen kopurua %70 baino goragoko eskualdeetako baserrietan egonaldiak eta jarduerak programatu dira, euskaltegi eta ikastetxeak kontuan izanda, bezero potentzial direlakoan.

